

Donostia, 2019ko urriaren 4a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA, HIRIKO HEZKUNTZA PUBLIKOAREN INGURUKOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, hiriko hezkuntza publikoari buruz, OSOKO BILKURAN eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

The Englis School ikastetxeari Baratzategi IN.07 hirigintza alorreko d.00 udal jabari publikoko lurzattia modu pribatiboan erabiltzeko jabari emakida eman zitzaiola eta, Udaleko Hezkuntza Atalak kontrako txostena egin zuen. Txosten horretan, besteak beste, ohartarazi zuen zer ondorio ekar zitzakeen hezkuntza sistemarako toki horretan zentro berri bat ezartzeak:

(1) Txosten horrek jasotzen duen kezketako bat da ikastetxe hori eta haren hezkuntza ereduak aldatzeak zer eragin izango duen, euskararen normalizazioaren ikuspegitik, hizkuntza ereduak.

(2) Beste kezka bat da haren kokalekuak nola eragingo dien inguruko ikastetxe publikoei; zehazki, Intxaurrondon dauden bi ikastetxe publikoei. Honela dio txostenak: (...) *Intxaurrondo auzoan kokatuta dauden bi ikastetxe publikoen (Intxaurrondo ikastola HLHI-a ETA Intxaurrondo Hegoa HLHI-a) azken urte hauetako matrikulak gainbera handia izan du, eta horren ondorioz hezkuntza zerbitzuaren eskumena duen Eusko Jaurlaritza bi ikastetxe horien etorkizunak kezkatzen hasia dela (...). Beraz, agerian dago, auzo horretan kokatuta dauden ikastetxeek eskaintzen dituzten plaza ugari, bete gabe geratzen ari direla.*

Udal gobernua, erakunde publiko gisa, interes orokorraren alde egin behar du, lehendik dauden ikastetxeen sare publikoa lehenetsiz eta bermatuz, eta saihestu egin behar du ikastetxe horietara joaten diren ikasleei kalte egitea, matrikulazioa jaitsiz gero gerta bailiteke auzoko bi ikastetxe publiko horiek itxi behar izatea.

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari azter dezala The English School ikastetxeak inguruko ikastetxeetan izango duen eragina, eta zaindu ditzala hezkuntza sistema publikoaren interesak, haren iraupena eta kalitatea bermatuz hiriko auzo guztietan.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari azter dezala hiriko ikastetxeetako matrikulazioak zer bilakaera izan duen azken hamar urteetan, hizkuntza eredua eta ikastetxe mota -publikoa edo pribatua- bereiziz, ikastetxe publiko guztien mantentzea bermatzeko neurriak hartze aldera.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, erakunde publiko gisa, lehentasuna eman diezaiola hirian hezkuntza sistema publikoa beste irakaskuntza eredu batzuen gainetik babesteari.
4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari berma dezala hiriko gurasoek beren seme-alabak beren bizilekutik hurbil ikastetxe publiko batean matrikulatzeko duten eskubidea, bai eta ikasleek hezkuntza sistema publikoan ikasteko duten eskubidea ere.

Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia